


## OBTAIN +



Hasteko, gure taldeak sortu duen **enpresa**, enpresa eraikitzaile bat dela esan dezakegu, hau da, hasieran soilik produktu batek izango du garrantzia enpresan, eta denbora pasa ahala bestelako produktuak eraikiko ditugu. Ziur gaude produktu gehiago emango ditugula, orokorrean bestelako pertsonen zailtasunak edo desabantailak murriztu daitezzen, zin ematen dugu.

**Produktuari begira**, ZEDE click(Zertaz Eginda Dago Elikagaia), da gure produktua. Bi eratako produktua sortuko dugu.

Lehenengoa, mobilen/tabletan egongo den aplikazio bat izango da.



Bestea aldiz, makina tramankulu antzeko bat izango da, gainean eramateko eskuragarria izango da, makina honen neurriak mugikor baten antzekoak izango dira. Makina/aplikazio honen helburua alergia duten jendearentzat, edo elikagaia zehatzak bete behar dituztenentzat zuzenduta dago.

### 1. WEBGUNEA

Gure enpresak webgune bat izango du, horrela produktuak erosteko erraztasuna eskainiko diegu bezeroei. Gainera, produktuei begira azalpen oso interesgarriak agertuko dira, esate baterako, produktuaren funtzionamendua, zer materialez egina dagoen,...

Azkenik, gune bat ipiniko dugu, jendearen keexka, zalantza edo gomendioak irakurtzeko.

